

DATORRENA

Eraginkortasunaren izenean
demokraziari balioa kendu

MAITE UBIRIA > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Garai berrirako oinarriak eta
printzipioak

PELLO OTXANDIANO > 9

2018ko uztailaren 14a | XII. urtea • 577. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BRUSELA, JOMUGAN

2019ko HAUTESKUNDE EUROPARRETAN MUGIMENDU ULTRAESKUINDAR ETA EUROESZOPTIKOEN
OLDARRALDIA ESPERO DA. OLATU HORREK HARTZEN DUEN INDARRAREN ARABERA, EGUN
BRUSELAN NAGUSI DEN JOERA EUROPAZALEA KOLOKAN EGON LITEKE. > 4 Miguel MEDINA | AFP



SINADURAK:

- 03 Maite Ubiria:
Eraginkortasunaren izenean
demokraziari balioa kendu
- 08 Saioa Aginako Lamarain:
Dona, dona, katona
- 09 Pello Otxandiano: Garai
berrirako oinarriak eta
printzipioak
- 15 Antton Izagirre: Gudak
- 15 Miren Azkarate Badiola:
Itzulera
- 16 Beñat Gaztelumendi: Afonia
- 17 Amaia Ballesteros
- 22 Izaskun Etxeberria Uztarroz:
Pasahitzak ahaztuta behin eta
berriro?



Euroeszeptiko ultraeskuindarren
Liga Bruselaren europartasuna
mehatxatuz 04

Zer dago gurasoak kartzelan
dituzten haurren motxilan? 11

Erretiratzeko asmorik ez 10

Hormigoizko blokeak
dikeetaraino garai batean bezala
eramaten dira 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



{ datorrena } **Maite Ubiria**

Eraginkortasunaren izenean demokraziari balioa kendu

Azkeneko 60 urteotan 25 aldiz aldatu dute V. Errepublika arautzeko Rene Coti buruzagi gaullistak aldarrikatu zuen Konstituzioa. Erreforma horiek arrazoitzeko orduan markoa gaurkotzeko beharra izan dute aipagai agintari guztiek, eta, norberak bere erara, frantziar esentzialismoa izan dute abiapuntu eta xede guzti-guztiek. Presidentetzarako hauteskundeak irabazi eta berehala, modernizazioaren izenean, Konstituzioa eta erakunde sistema errepublikarra eguneratzeko ekimena iragarri zuen iaz Emmanuel Macron presidenteak. Urtebete geroago, Versaillesko jauregira itzuli zen astelehenean Errepublika Martxan (LREM) alderdiko burua. Kongresuaren aurrean eginiko hitzaldian, lainoz bete zuen hurrengo hilabeteetan bi ganberetan eztabaidatuko den egitasmoa. Hilaren 24 arte orotara 5.000 emendakin jaso dituen erreformaren enborra aztertuko dute legebiltzarkideek. Izan ere, irailetik aitzin zabalduko dira Macronek proposaturiko aldaketa zehatzen gaineko eztabaida saioak. 2019an amaitzekoa den erreforma prozesuak eragin zehatza izanen du 2021ko Legebiltzarrerako bozetan.

Prozesua abiatu berri denean helmugara erreparatzea urrutiegi begiratzea dela irudi dezake. Alta, bertikaltasuna ikur duen prozesuaren irismena neurtzeko orduan lagungarria izan daiteke. Paristik eta Pariserako, jauregitik eta jauregirako erreforma proposamena jarri du mahai gainean Macronek. Are, oraindik ere ez dago argi herritarrek testu berriari buruzko iritzia ematerik izango duten edo ez erreferendum bidez. Horregatik, ez dira falta arrazoiak pentsatzeko Legebiltzarraren eremuari hozka eginez demokraziaren –bere zentzu apalenean hartuta– eragina murriztea dela Macronen benetako apustua. Eraginkortasunaren izenean, Legebiltzarraren boterea xurgatu eta Gobernuaren –hots, presidentearen– esku

hartzea areagotzea da abiatutako erreformaren anbizio-rik handiena. Horretan ere, bere aurrekariak marraztutako bidetik joko du, akaso lotsa gutxiagorekin, Macronek.

Funtzio publikoko langile kopurua murrizteko programa zorrotza ezarri ostean, jardungo Konstituzioaren arabera legeak egiteaz gain lurraldeak ordezkatzeko funtzioa duten ordezkarien kopurua murrizteko plana gauzatu nahi du presidenteak. Zehazki, %30 apaldu nahi du legebiltzarkide kopurua, bide batez, proportzionaltasun dosi neurtua sartuta, horietako batzuk hautatzeko arauak aldatuz. Hartara, Parisko artaziek beste behin ere eragingo diote lurralde banaketari. Sorpresarik gabe, herritarrak periferia politikotzat hartuz.

Besteak beste, Euskal Herrirako asmatutako hauteskunde mapari helduko dio Macronek. Sei hautesbarruti

Sei hautesbarruti izan ordez lau marraztu ditzake erreformak. Banaketa berriak logika zaharrari hel diezaioke, ordea, Euskal Herriko mapa ezkutatzera jokatuz

izan ordez, lau egongo lirатеke, baina logika zaharra mantenduz. Hartara, Euskal Elkargoaren sorrerak erabat itzali duen departamenduaren arkitekturari hauspoa emanez, Biarnoko eta Euskal Herriko boto emaileak nahas-mahas biltzen dituen hautesbarruti mistoa betikotu dezake erreformak. Hala balitz, Euskal Herriko mapa ezkutatzeko enegarren saioaren aurrean egongo ginateke. Dagoeneko, Korsikako «berezitasuna» formalki aitortzeko, Eliseok korsikarren erabakimena ukatzen duen erre-zeta birberotu du. Uharteko herritarrek hauteskunde bidez finkaturiko asmoak mugatzeko urratsa eman du Macronek. Eraginkortasunaren izenean, demokraziaren balioa gutxituz. •

BRUSELA, EUROPAZALE?

Euroeszeptiko ultraeskuindarren Liga Bruselaren europartasuna mehatxatuz

 **EUROPA** / Aimar Etxeberria Korta

Kontinentean zeharreko mugimendu ultraeskuindar eta euroeszeptikoen oldarraldia espero da 2019ko hauteskunde europarretan. Oldarraldiak hartzen duen indarraren arabera kolokan egon liteke gaur egun Bruselako Legebiltzarrean nagusi den joera europazalea, orain arte inoiz ikusi gabeko gehiengoei bide emanez.

Haizea popatik, olatua hartuta harro dabil Matteo Salvini, Legako buru eta Italiako Barne ministroa. Hainbeste, ezen herrialdean erdietsi duen arrakasta Europa mailara hedatu nahi duen. Ultraeskuindarra eta euroeszeptikoa bera, aliantza egin asmo du bere sokako Europan zeharreko alderdiekin 2019ko hauteskunde europarrei begira.

2013an egin zen Salvini alderdiaren buruzagitzarekin. Orduan, Iparraldeko Lega zen honen izen ofiziala eta italiar hautesleen %5ek soilik babesen zuten. Bost urteren ostean, Italiako Gobernuko parte da, azken hauteskunde orokorretan herritarren %17ren babesa jaso ostean. Gutxi balitz, Lega litzateke alderdi bozkatuena egun Italian hauteskundeak egingo balira, %30 inguruko babesarekin.

Immigrazioaren aurkako borroka eraman du Salvini, batez ere, arrakastara, nahiz eta ez diren etorkinak bere etsai bakarrak. Bada gaitz guztien errudun bat, “euroeszeptikoen Mordor” bat: Brusela. Eta, zantzu guztien arabera, eta behin etorkinen iritsieraren aurkako guda bideratuta duela ematen

duenean, badirudi elite europarren aurkako erasoari ekiteko prest dela buruzagi milanarra. Hala iragarri zuen behintzat hil hasieran Pontidan, alderdiaren jarraitzaileekin egindako ekitaldian.

«Irabazteko italiarrak elkarrekin behar izan genituen, eta orain Europa batu behar dugu. Europako Ligen Ligaz ari naiz pentsatzen, aske eta subiranista diren eta euren herritarrak eta mugak defendatu nahi dituzten guztiak elkartzeaz», adierazi zuen Salvini, eta ohartarazi zuen: «Aurten egitea lortu dugun bera egingo dugu datorren urtean maila kontinentalean». Egin asmo duen hori norekin egingo duen ere aurreratu zuen: Marine Le Pen frantsesarekin, Viktor Orban hungariarrarekin eta Sebastian Kurz austriarrarekin, besteak beste. «Zin egiten al duzue europarrak as-

Aliantza ultraeskuindar eta euroeszeptikoa eratzeko harremanetan dira Salvini eta Le Pen. Hauen inguruan eratu daitekeen blokeak, baina, talka egin dezake Alemaniako AfDrekin

Ziurtzat ematen da alderdi euroeszeptiko batzuen –AfD, Lega eta FPÖ– gorakada. Txanponaren beste aldean leudeke alemaniar, frantses eta italiar sozialdemokratak

katu bitartean ez duzuela etsiko?», galdetu zion Salvini alderdiaren aldeko ekitaldian elkartutako jendetzari, ahobatezko baiezkua jasoz bueltan. Gaineratu zuenez, Legaren ideiak aplikatzea da «Europaren biziraupena bermatzeko azken esperantza». Behin oholtzatik jaitsita, alderdikideekin *selfie*-ak egin eta koktelak hartzeari ekin zion.

BRUSELA, ARDURATUTA?

Ezaguna da europar instituzioetan Salviniaren jarrera erasokorra, baita honen erretorika belikoa ere. Horrek, agian, honen esanak gutxiestera eraman dezake elite europarra. Salviniaren esanez gain, baina, baditu Bruselak nahikoa buruhauste datorren urteko hauteskundeetara begira.

751 europarlamentari daude egun Europako Legebiltzarrean, eta horietatik 151 dira euren burua euroeszeptikotzat dutenak. Hauek bi talde nagusitan daude banatuta: Askatasunaren eta Demokrazia Zuzenaren Europa eta Nazioen eta Askatasunaren Europa. Egungo europar proiektuan sinesen ez duten kide horiek sortu ditzaketen arazoez gain, zilegitasun afera bati ere aurre egin beharrean izango da Brusela datozen hauteskundeetan.

Izan ere, europarren gehiengoak uste du Batasuna norabide okerrean doala, eta esandakoa ez da iritzi soil bat. Iragan maiatzean 27.600 europar galdetu zituen Eurobarometroak, eta horien artean %44k adierazi zuten Europar Batasunak hartu norabidearekiko ezkortasuna; %32 izan ziren politika kontinentalak bide onetik doazela esan zutenak.

Europa, bere aldetik, eta eskaintzeko hoberik ezean, diruz ahaleginduko da zilegitasun

PONTIDA, SALVINI ETA ALBANIAKO ETORKINA

Pontida da Legaren hiriburu idilikoa. Nonbait, bertan eman zituen bere lehen urratsak Lombardiako Ligak, eta bertan asmatu zuen alderdiak Padaniako bandera. Bertan ospatu ohi dute urteroko topaketa, eta bertan elkartu ziren 75.000 pertsona uztaileko lehen igandean. Behinola, bertan abestu ziren Napoliren aurkako kankak, eta bertan egin zituen Salvinik ezkeraren aurkako txisteak, arrosarioa eskuan hartuta. Eta tartean, Albaniatik iritsitako etorkin bat, immigrazioaren aurkako erretorikak berarekin zerikusirik ez duela pentsatzen duen bat. «Afrikarrak dira arazo», dio berak margotutako Salviniren koadro bat eskuan duela.



arazoari aurre egiten. 30 milioi eurotik gora inbertituko dituzte Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak 2019ko maiatzean egingo diren hauteskundeei begira. Batez ere, parte hartzea sustatzeko kanpaina publizitarioa egingo dute, fokua gazteengan eta Europar Batasunarekiko jarrerara baikorra duten horien gain jarritz.

Aurrez aipatutako inkestaren arabera, populazioaren erdiak baino ez du erakutsi hauteskunde europarretan parte hartzeko interesa. Aipa-

Salvini, Pontidako ekitaldian, «Lehendabizi italiarrak» dioen pankarta baten atzean.
Miguel MEDINA | AFP

tu datua azkenengo hauteskundearen ildo beretik doa; 2014an, %43koa izan zen Europako Parlamenturako hauteskundearen batez besteko parte hartzea, zazpigarren aldiz segidan beheranzko tendentzia erakutsiz. Eslovakia izan zen parte hartze datu baxuena erakutsi zuen herrialdea; %13 eskas batean geratu zen bozkatzera gerturatu ziren eslovakiarren zifra. Parte hartzearen hodei beltza mehatxu, horri eta euroeszeptizismoari aurre egitea izango da elite europarraren gaurtik

2019ko maiatzera bitarteko eginkizun nagusia.

EUROESZEPTIKOAK, ELKARREKIN?

Euroeszeptikoez hitz egitean, baina, noren inguruan ari gara? Zeintzuk dira eta zer asmo garatu nahi dituzte? Izan ere, eta elite europarraren zorionerako, badirudi sektore heterogeneo batez ari garela, ideia, ikuspuntu eta helburu propioak dituzten mugimenduez. Historiako Europako Legebiltzar euroeszeptikoena utzi dezakete 2019ko hauteskunde europarrek, baina izango al di-

ra gai guztiak elkartu eta agenda komun bat garatzeko?

Marine Le Pen frantziararren Fronte Nazionale da Salvinik bere ondoan nahiko lukeen aliatuetako bat. Jakina da honek kontinentean zeharreko mugimendu ultraeskuindar eta euroeszeptikoak batzeko duen nahia; esaterako, Nizan elkartu zituen iragan maiatzean Geert Wilders Askatasunaren Alderdiko (VVD) lider herbeheretarra, Harald Vilimsky Askatasunaren Alderdi (FPÖ) austriarreko kidea eta Tomio Okamura Askatasuna

eta Demokrazia Zuzena (SPD) alderdi txekiarreko liderra. Salvinik ere, nahiz eta fisikoki bertan ez izan, parte hartu zuen bilkuran; bere iritzia eman zuen bideo baten bidez.

“Europako Nazioen Batasuna” izenez bataiatu du Le Penek bere ekinbide euroeszeptikoa, eta proposamenen artean dago Europar Batzordearen abolizioa, besteak beste, «guztiaren inguruan erabakitzen duelako soilik merkatu interesak obedituz». Le Pen eta Salviniren inguruan eratu daitekeen blokeak, baina, txoke egin dezake Europako beste mugimendu ultraeskuindar batekin: Alemaniarako Alternatibarekin (AfD).

Jörg Meuthen da alderdiaren europarlamentari bakarra. Adierazi izan du honek harreman estua duela FPÖ austriarrarekin, eta honekin aliantza egiteko prestutasuna ere erakutsi du. AfDk bat egiten du kontinente zeharreko gainerako mugimendu euroeszeptikoekin puntu batean: Europar Batasunaren politika migratorioaren aurkakotasunean. Aldiz, merkatu librearen aldekoa da, eta ez du euroaren erabilera ezbaian jartzen. Batasunaren erreforma babesten du, baina ez hau uztea: «Europar Batasun hobia eraiki nahi dugu, txikiagoa, baina ez dugu honen heriotzarik opa». Fronte Nazionalaren inguruan, «alderdi ezkertiar baten zantzuak» dituela adierazi izan du. Ez da, beraz, maitasun handirik bi alderdion artean. Antisemitatzat du AfDk Fronte Nazionala, eta gaur arte uko egin izan dio euren elkarlanean aritzeari. «Edozeren aurretik abertzaleak gara gu», erantzun diote Fronte Nazionaletik Meutheni.

Zentzu horretan, eta nahiz eta ez den behin ere alderdia-



Goian, Le Pen, eta, behean, Meuthen. Biak ala biak ultraeskuindarrak izanagatik, ez dira gaur arte ados jarri elkarlanean aritzeko.
Gerard JULIEN - Christof STACHE | AFP

ren proposamen nagusi izatera iritsi, egin izan du Le Penek “Frexit”-aren aldeko adierazpenik, hots, Estatu frantsesak Europar Batasuna uztearen aldeko hitzik. Era berean, jarri izan du zalantzan euroaren erabilera ere. Joera bera izan du Salviniren Legak, modu erasokorrango batean agian, euroaren erabileraren aurka batetz ere. Gaur-gaurkoz ezin esan daiteke proposamena alde batera utzi duenik –kasu Paolo Savona Ekonomia ministro izendatzeko ahaleginari–, baina ukaezina da Gobernura iristeko aukera izan zuenetik tonua lausotu duela.

HAUTETSONTZIAK LAGUN

Elkarrekin, botoen %53en jabe egin ziren Europako Alderdi Popularra eta Europako Alderdi Sozialista 2014ko hauteskunde europarretan. Datorren urteko hitzorduari begira, baina, badirudi kontinente mailan gehiengoa duten bi bloke tradizionalak egungo botere mailari eusteko arazoak izan ditzaketela. Egoera horrek arazoak eragin ditzake, besteak beste, Europa mailako kargu garrantzitsuenak hautatzera ko orduan –Europar Batasunaren, Europar Batzordearen eta Europako Banku Zentralaren presidentetzak, esaterako–.

Izan ere, emaitza onak ari dira lortzen azken denboran alderdi euroeszeptikoak euren herrialdetako hauteskundee-tan, eta pentsa liteke Europa-ren aurkakotasunarekin lortu-tako arrakasta nazionalak emaitza bera edo hobia eman dezakeela kontinente mailako bozetan. Esaterako, europarlamentari bakarra du egun AfD alemaniarrek, baina ordezkari-tza hori handitzeko esperantza-rekin aurkeztuko da hauteskunde europarretara –botoen



Steve Bannon, Etxe Zuria utzita Europar zehar populismoaren haizeak harrotzen ari den estrategia politikoa. Gage SKIDMORE

BANNONEN MISIOA: EUROPAN BAZTERRAK NAHASTEA?

Misioan dabil Steve Bannon AEBetako presidente Donald Trumpen kabinete buru eta estrategia ohia. Batek daki noren izenean ari den, edo freelance moduan dabilen. Ziurra dena da Europako hainbat hiriburu –tartean Erroma, Praga edota Budapest– bisitatu dituela azken hilabeteotan, populismoaren haizeak harrotu asmoz. Bannonek, baina, jaso ote du merezi duen arreta mediatikorik?

Eremu emankorra da Europa Bannonentzat bere ideia populistak aieratzeko, eta Trumpen AEBetan egin zuena errepikatu nahi du orain kontinente zaharrean. «Pentsalari bikain» bezala izan zen aurkeztua publikoaren aurrean Hungariako hiriburuan, Legak eta Bost Izarren Mugimenduak erdietsitako «aliantza

historikoa» txalotu zuen Erroman, eta gerraosteko ordena liberal «fetitxea» kritikatu zuen Pragan. Le Penekin ere partekatu du oholtza, eta hala piztu zuen jendetza: «Utz iezaiezue arrazista dei diezazueten, xenofobo, natibista, homofobo, misogino. Jantz itzazue bereizgarri horiek ohorez!».

Bannonen Europarekiko interesa, baina, ez da berria. 2014an Vatikanoa aukeratu zuen bere mundu ikuskeraren berri emateko, audientzia ultrakatoliko baten aurrean jardunez. Ordutik, globalizazioaren aurkako gerran dabil, populismoa estandartetzat hartuta.

Baina nork finantzatzen du Bannon? Eta nola eragin dezake honen jardunak europarrei begira? Gauza jakina da Trumpen Europar Batasunaren aurka

merkataritza gerra abian duela. Ondorioz, bada pentsatzen duenik guztia Bannon eta Trumpen arteko kontua dela. Biak ala biak gutxiestea okerra litzateke europar elitearentzat, hauen jardunari gehiegizko arreta eskaintzea litzatekeen moduan.

Bere hitzaldietan ez du Bannonek europar proiektuaren desagerpenaren aldeko adierazpen espliziturik egiten. Are, honen eraberritzea defendatzen du, euroaren erabilera baztertzei hasi eta «ordena liberal eta unibertsala estatu librean konfederazio batean» bilakatzeko proposatuz. «Mundu berri ausart» baten hasiera predikatzen du han eta hemen. Hori, ideologia ultranazionalista batetik, kultura mendebaldar hertsia oinarri eta «mundu judutar-kristauaren etsai direnen aurka».

%7 jaso zituen 2014ko hitzorduan; azken hauteskunde orokorretan, berriz, botoen %12,6 lortu zituen. Italian, bestalde, botoen %6,15 bereganatu zituen Salvini azken hauteskunde europarretan, eta inkestek hautesleen %30en babesa izango lukeela adierazten dute gaur egun. Eta ez litzateke batere harritzekoa fenomeno bera ematea Austrian ere FPÖ alderdiarekin. Izan ere, %19,7ko babesa eskuratu zuen Europako Parlamenturako azken bozetan, eta, aldiz, botoen %26 lortu zituen Austriako azkenengo hauteskundeetan. Euroeszeptikoek, gainera, ia ziurtatuta lukete Poloniako Legea eta Justizia (PiS) eta Orban hungariarraren Fidesz alderdien arrakasta.

Txanponaren beste aldean legoke sozialdemokrazia europarra. Galera handiak espero dira sozialdemokratentzat Alemanian, Estatu frantsesean eta Italian, besteak beste. Horrek guztiak arriskuan jarriko luke Europako Legebiltzarraren egungo joera europazalea, bestelako eta nehoiz ikusi gabeko gehiengo batzuei bide emanez.

«Ukaezina da mugimendu euroeszeptikoek asko handituko dutela beren ordezkaritza Europako Parlamentuan datozen urteko bozetan», adierazi zion Charles de Marcilly Robert Schuman Foundation *think tank* frantsesaren Bruselako arduradunak «Politico» hedabidearen edizio europarrari. «Guztiak batu eta alderdi bakarrean elkartzen badira ez dira lehen indar izatetik urrun ibiliko», ohartarazi zuen. Proposamen zehatzen inguruan egin beharko lukete aliantza Charles de Marcillyren ustez, baina egungo euren DNA soilik kritika egitean oinarritzen dela irizten dio. «Euroeszeptikoak ala eurofoboak dira?».



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Dona, dona, kationa

Mendira ala itsasora? Letrak edo zientziak? Bakarrik edo norbaitekin? Orain edo inoiz ez? Era horretako galderak eta beste milaka egiten dizkiogu gure buruari egunero. Konturatu ez arren, erabakiak etengabe hartzen ari gara. Bizitza, erabakiak hartzearen poderioz, aurrera baitoa. Baina erabaki guztiak ez dira maila berdinean esanguratsuak. Batzuk berehala hartzen ditugu, erraza zaigu eta ia-ia ez gara konturatzen. Beste batzuek, ordea, kopeta izerditu eta hilabeteetako loa kentzen digute.

Egunero, dikotomia polarizatuen artean existitzen den ezerezean mugitzen gara, alde batera edo bestera iristek suposatzen duen erabakia hartzeak emango digun lasaitasunaren bila. Argi dago, askotan, ezerez horretan murgilduta sentitzen garela, bi jomugotako aukeren artean preso. Mundua dikotomia baten barruan ulertzea ohitu gara eta pentsamenduak automatikoki horretara bidaltzen gaitu. Bi aukeren artean erabakitzea, sarritan zaila egiten baldin bazaigu, pentsa aukerak ugariak balira! Bada, aukerak ugariak dira eta ñabardurek ahalezko egiten dituzte.

Erabakiak hartzerakoan, burua eta gorputza modu baztertzailean erabili ohi ditugu, hauen izatea baztertzailea balitz bezala. Horrela, batzuek erabakiak sentimenduetan oinarrituta hartuko dituzte, eta, beste batzuek, berriz, arrazoian oinarrituta. Baina, zergatik bat ala bestea? Zergatik ez batu biek eskainitako indarrak?

Egia da, zientzia garatzen hasi zenetik, arrazoiari neurritz kanpoko balioa eman diogula, mundu emozionalaren kalterako. Gure gizartean arrazoiak esaten digunaren arabera jokatzek, emozioen munduaren arabera jokatzek baino estatus handiagoa

dauka. Emozioek pentsamendua moldatzen dute eta pentsamenduak emozioengan eragiten du. Bat edo bestea guztiz baztertzea ezinezkoa da. Erabaki bat hartzeko garaian, zenbat eta arrazionaltasun handiagoa tartean sartu, horren kalitatea are eta hobeagoa izango den ideia oso zabaldua dago. Baina hori ez da beti horrela. Alde batetik, pentsamenduak existitzen diren aukeren onurak eta desabantailak aztertzen ditu, eta, bestetik, behin aukerak murriztu eta gero, emozioek horietako bat aukeratzen laguntzen digute; gure erabakia izango dena alegia.

Beraz, erabakiak hartzerakoan, gure buruarekin konexioan egotea garrantzitsua da; hau da, arreta barrura begira egotea eta ez kanpora begira; edo berdina litzatekeena, lagun edota senitartekoek duten iritziari begira ez egotea. Aldi berean, aukera bakoitzaren inguruan gogoeta egitea komenigarria da. Konbentzitzen gaituena eta, aldiz,

beldurra ematen diguna, kontuan hartuz. Hartutako erabakiaren ondorioak zeintzuk izango diren jakitea ezinezkoa den arren, horiei aurre egiteko gai garen edota prest ote gauden galde diezaiozun gure buruari.

Arriskuak gure egiten ez baldin baditugu, bizitzan zehar nekez emango ditugu aurrerapausoak. Errealitateari aurrez aurre begiratzeak, baina, ezbeharrei erantzuteko beharrezko iaioitasunak baditugula erakutsiko digu. Zoriontasuna guk geuk sortzen baitugu, gertakarien aurrean hartzen dugun jarreraren bitartez. Horrek, noski, esfortzu bat suposatzen du, gure beldur sakonenak elikatzen dituzten ohiturak deseraikitzeke erabakiak hartu behar ditugulako. Bada, ongi etorri heldutasunera. •



Egunero erabaki mordoa hartu beharra izaten dugu. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Garai berrirako oinarriak eta printzipioak

Pasa den ostiralean jakin genuen, sanferminetako txupinazoarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko estatus politiko berriaren oinarri eta printzipioen inguruan ados jarri direla EH Bildu eta EAJ, eta akordio horren zati batzuek Podemosen oniritzia ere badutela. Historikotzat jo du akordioa EH Bilduk eta Xibertako elkarrizketez geroztiko bi familia abertzaleen arteko akordiorik sendoena dela esan izan da. Nago akordio hau baloratzeko orduan edukiak besteko garrantzia duela testuinguruak, hau da, akordioa noiz gertatzen den –zein momentutan ikuspegi historikotik eta fase politikoarenetik–.

Begirada historiko batetik ezin dugu alboratu akordio hau borroka ziklo baten itxieran eta berri baten irekieran kokatzen dela, hainbeste aipatu den trantsizio garaian. Zentzu horretan, uste dut, batetik, akordioan jasotzen diren edukiak hamarkadetako borroka metatu duen kapital politikoa islatzen duela, eta, bestetik, garaiko pulstio sozialen eragina ere jasotzen duela. Hau da, bi korrante, iraganetik datorrena eta etorkizunetik datorrena, kristalizatzen direla akordioaren lerroetan.

Iraganari dagokionez, Xibertako elkarrizketen porrotaz geroztiko borroka balizko herri akordio baten langa noraino altxa duen, horixe dira akordioaren termino politikoak. Eta ez da emaitza makala: burujabetza marko bat, Estatuarekin berdinen arteko harremana proposatzen duena, askoz hurbilago dagoena independentziaz Euskal Herria itotzeko pentsatzen autonomismotik baino. Ez da emaitza makala, inolaz ere, Estatuak, 40 urtez, independentismoa sozialki marjinala bihurtzeko diseinu bat garatu duela kontuan hartuz gero.

Bi tradizio abertzaleen arteko konkurrentzia bat eman da akordio honetan, azken 40 urteotan gertatu ez dena, noiz eta Xibertaz geroztik batzuek eta besteek erabili dituzten paradigmak agortu direla begi bista-

koa zaigun garaian: ezker abertzaleak ez du sistema konstituzionalaren kanpotik jardunez autodeterminazio eskubidea lortu, eta EAJk ez du autogobernuan sakontzeko biderik aurkitu sistema konstituzionalaren baitan. Lau hamarkadetan elkar aurkitzeko egon diren hainbat saiakera frustraturen ondoren, akordio hau, nolabait, Lizarra-Garazin posible izan ez zen bien arteko sintesi gisa uler liteke. Aldi berean, nabarmena da akordioa borroka ziklo berriak ere ezaugarritzen duela. Adibidez, garaiko erronka sozialei erantzuteko saiakeran, erabakitzeko eskubidearen kontzeptualizazio berritzailea egiten dela bi tradizio politikoen erreferentzietatik begiratuta ere.

Akordioa fase politiko honen testuinguruan kokatzen badugu, aldiz, uste dut mugarri taktiko bat zehazten dela bertan, ezker abertzaleak “XXI. mendeko Alternatiba Demokratiko” gisa uler lezakeena; datozen garaietan Estatuak demokratikoki konfrontatzeko instrumentu ideologiko eta politikoak jasotzen baitira bertan, eta independentismoari dialektika eman- kor baterako bideak eskaintzen baitizkio, bai Podemos-Ahal Duguk ordezkatzeko duen esparru politikoari dagokionez bai eta ezohiko indarrez agertzen ari diren mugimendu sozial berriei dagokienez ere.

Begi bistakoa da jeltzale ofizialistei, eta inguruan dauzkaten intelektual pseudo-abertzaleei, akordioak ez diela grazia handirik egiten. Ezin da ahantzi estatus politikoaren eguneratze prozesuaren lehen fasea baino ez dela honako hau. Eta noski, Euskal Herriaren zati batez baino ez garela ari kasurik onenean. Bai, baina ez da gutxi halere. Urte politiko honi erreparatuz gero, dinamika instituzionalaren eta gizarte mugimenduen artean izan den txertaketak sortzen dit esperantza gehien niri. 175.000 lagunek, eskutik helduta, mandatu bat eman zioten EAEko Parlamentuari. Gaur, akordio parlamentario bat dago mandatu hori jasotzen duena. •

EAEko estatus politiko berriaren oinarri eta printzipioen inguruan ados jarri dira EH Bildu eta EAJ



Jon URBE | FOKU

 IKUSMIRA

ERRETIRATZEKO ASMORIK EZ DUZUNEAN

Erretiratzeko asmorik ez duzunean, edozein kale kantoi bihurtzen duzu konfidentziarako txoko apropos. Publikoetan publikoenak izanagatik, dauden tokirik intimoenak baitira kale kantoiak, atariak, bankuak, belardiak, komuneko ateak... sanferminetan. Eta jendez inguratuta egonagatik, bakarrik bezala sentitu zaitezke laguna ondoan hartuta bezperako lainezari segida ematen. Etxean, tabernan, elkartean... hizketaldia gehiegitxo luzatzen denean beti azaltzen da norbait erratzarekin, lurra garbitzeko aitzakian hiztunak etxera bidaltzeko. Askotan, baina, hankak altxatu, erratzari bere lana egiten utzi eta segi egiten du solasaldiak. Erretiratzeko asmorik ez duzunean ez dagoelako erretiraraziko zaituenik. Amagoia Mujika Telleria


«MOTXILA ETORKIZUNEZ BETE»

Oihana Llorente

Gurasoren bat espetxean duten haurren errealitatea bistaratzeko asmoa dute orriotan jasotako hamabi artelanek. Exprai artistaren sinadura dute, eta kartzelarekin harreman estuegia duten haurren eta nerabeen hitzak eta sentipenak dira grafikoki ikus daitezkeenak. «Motxila etorkizunez bete» erakusketa Sare Herritarrak sustatu du.

Maitia, nun zira?

Zenbat kilometrotara daude preso motxiladun haurren gurasoak?



Guraso biak edo haietako bat espetxean duten haurren testigantzak jasotako hamabi artelanek Exprai artista nafarrak. Errealitate gogorra da, zama handiko motxila. Baina, ere berean, une magikoak jasotzen dituen zorroa da. Motxiladun umeez bizi duten errealitatea ikustaraztea du asmo Sare Herritarrak bultzatutako erakusketak.

«GRANADAN JAIO NINTZEN»

Granadako espetxean sortu zen ume baten bizipena jasotzen du lehen lanak. Andaluziako espetxe horretan preso zuten ama erditu zenean eta berekin eman zituen bizitzako lehen hiru urteak. Bere bizitzako lehen 36 hilabete horietan, baina, bospasei presondegira egokitu behar izan zuen.



«AITATXO IKUSTEKO BEDERATZI ATE»

Bigarrenak, aita espetxean duen neskato baten bisitak zer-nolakoak diren azaltzen du. Zenbatzen ikasi orduko, espetxean sartu eta aita besarkatu arte igaro beharreko bederatzi ateak zenbatzen zituela ekarri du gogora neskatoak.

«ATERATZEN DENEAN...»

Aita espetxetik ateratzerakoan elkarrekin partekatuko dituzten ametsak aitortu ditu beste neska honek. Zortzi urte ditu dagoeneko, eta ez du inoiz aita kartzelatik kanpo ezagutu. Argi du, ordea, goiz ala berandu, bere eskutik munduari bira emango diola belaontzian.

«KRISTAL LODITIK IRRIBARREA»


Kristal lodiak irribarreak lapurtuko ez dizkiola argi du beste nerabe honek. Bere aitak hogeitau urte bete ditu kartzelan, eta, beraz, ez du espetxetik kanpo inoiz ikusi. Haatik, bere ondoan igarotako uneak oroitzapen ederrak dira beretzat.

«BATZUETAN, EZIN DUT»


Haurrak nagusitu ahala, eskolak ezarritako etxeko lanak edota kirol partidak direla, zailagoa da umeentzat bisitan joan eta asteburua errepidean igarotzea. Batzuetan lagunekin geratzea nahiago izaten dute, besteetan, ordea, ama eta aita besarkatzeko pozez egiten dituzte milaka kilometro. Errealitate mikatz hori jasotzen du beste irudi batek.

«BOST MINUTUKO DEIAK»


Kartzelako dei telefonikoak nolakoak diren azaltzen digu haur honek. Aitak bi dei egiten dizkio astero, bost minutukoak biak, baina, bat-batean, agur esateko eta muxuak emateko astirik gabe, moztan direla dio kexu umeak.




8 urte ditut eta nire aita beti egon da kartzelan. Baina ateratzen denean belaontziz munduari buelta emango diogu.



Aita beti kartzelan ezagutu dut, 20 urte daramatza preso. Nire haurtzaroan aitarekin bizi izan ditudan momenturik onenak Jaengo espetxean bizitakoak izan dira. Oroitzapen politak. Kristal lodiak ez dit irribarreak kenduko.



Asteburutan torneoak ditut baina batzuetan ezin dut parte hartu, aita eta ama ikustera joan behar dudalako. Egongo dira torneo gehiago; nahiago dut ama eta aita ikusi. Ikastolan bidaltzen dizkiguten etxeko lanak bidaletara eramaten ditut.



Aitak bi dei egiten dizkit astero. Guk ezin diogu deitu. Batzuetan ez dugunean espero deitzen gaitu eta beste batzuetan deiazen zai egoten gara. 5 minutuko deiak dira. Oso laburrak egiten zaizkit. Bapatean gainera moztu egiten da...



«GALDERAK PILATZEN DIRA»

Gero eta nagusiago izan, aita preso izatearen arrazoiak gero eta gutxiago ulertzen zituela aitortu du beste ume honek. Galderak ere askoz gehiago dira adinak aurrera egin ahala. «Zergatik behartzen gaituzte hainbeste kilometro egitera? Zergatik bete behar dugu haien zigorra parte batean?», galdetzen dio bere buruari.

«AITAREN LOGELA»

Aitaren bizitokia ezagutzen ez duen bezala, aita ere ez du alabaren logela ezagutzen. Ez ditu eskolan egin eta paretan jarritako marrazkiak ikusi, ezta Olentzerok ekarritako jostailuak ezagutu ere. Aita ez du inoiz bere logelara eraman.

«LAGUNAK, GURASOEKIN»

Lagunak euren gurasoeekin ikustean, bere gurasoen hutsunea sentitzen du beste ume honek. «Triste sentitzen naiz orduan», aitortzen du.

«ILUNA ETA HOTZA»

Espetxea espazio «ilun eta hotza» dela iritzi dio beste haur honek. Bertan lan egiten duten funtzionarioak, gainera, «beti haserre» daudela uste du.

«AGURTZEA EZ DA ERRAZA»

Bisitaren amaierako azken minutuen gordintasuna jasotzen du lan honek. Kartzelatik atera nahi duen arren, «amorrua» sentitzen du ume honek bere gurasoengandik banatu behar duen momentu horretan. «Agur hori ez da inoiz erraza izaten», dio.

«ESPERANTZA»

Azken lanak itxaropenari egiten dio dei. «Esperantza ezin da inoiz galdu. Esperantza galtzen badugu jada ez zaigu ezer geratzen», dio ume honek.





19 URTEAN 15 EGUN BESTERIK EZ KARTZELAN DAGOEN GURASOAREKIN

19 urtez guraso bat preso duen ume bat 15 egun besterik ez da berekin egon zigorrak iraun bitartean. 19 urte horietan partekatu ahal izan dituzten bisiten ordu kopurua, gutxi gorabehera, 360 ordukoa izango baita. Testigantzak jasotzeaz gain, gurasoren bat espetxean duten


umeon gaineko datuak grafikoki agertu ditu Expraik «Motxila etorkizunez bete» erakusketan. Haurron adina, gurasoak ikusteko egin beharreko kilometroak edota gurasoekin igarotako denbora jaso ditu. Gurasoren bat ala biak espetxean dituzten haurren eta

nerabeen egoera plazaratu nahi du erakusketak. Egun, 104 ume osatzen dute “haur motxiladunak” gisa ezaguna egin den kolektiboa. Umeotako gehienek, 83 haurrek hain zuzen ere, aita dute preso. Zortzik amarekin egoteko bidaiatu behar dute Estatu espainol eta frantsesean dauden kartzeletara, eta, bederatzik, berriz, ama eta aita, biak, dituzte preso. Lau haurrek, kartzelan jaioak eta hiru urte baino gutxiagokoak izanik, amarekin partekatu dezakete gaur-gaurkoz espetxealdia. Haurren adinari ere erreparatu dio lanak. Ume gehienek, hiru eta sei urte bitartean dituzte; 25ek, zehazki. Badira, baina, txikiagoak diren haur motxiladunak ere; dozena bat dira hiru urtez azpikoak. 9 eta 12 urte arteko seme-alabak ere mordoxka bat dira, 22 guztira; eta 18 dira dagoeneko nerabeak direnak, hau da, 15 eta 18 urte artean dituztenak. Gurasoak ikusi ahal izateko haurrek

asteburuero egin behar dituzten kilometroak ere jaso ditu erakusketak modu oso grafikoan. Gehienek, bidaiatu behar duten 100 umeotatik 45 haurrek, 800 kilometro arteko joan-etorriak egin behar dituzte gurasoekin egon ahal izateko. Haur motxiladunen kolektiboko 17 haurrek 400 kilometroko bidaiak egin behar dute gurasoengana joateko. Egoera latzena, baina, 35 haurrek sufritzen dute: asteburuero 1.100 kilometro egin behar izaten dituzte beren gurasoekin egoteko. Azken urteotako errealtateari begiratu dio Expraik beste grafiko batean, haur eta nerabeon begietatik gatazkari erreparatuta. 104 haur motxiladun hauetatik 47k ez du ETaren jardun armatua ezagutu. Gainera, ETaren behin betiko su etena eman zenean 3 urtez azpikoak zirenak gehituz gero, 67 lirateke. Hau da, haur motxiladunen kolektiboaren %59.

Zer moduz, aspaldiko?

19 urtez aita preso duen ume bat guztira 15 egun besterik ez da berarekin egon zigorrak iraun bitartean.



Laukitxo bakoitzak 19 urteko zigorraren egun bat irudikatzen du. Berdez dagoena, epe luze horretan umak aitarekin eman duen denbora da.

Gudak

Antton Izagirre

Lau urtez behin Munduko Futbol Txapelketa bezalako gertakari erraldoiak parada ezin hobia eskaintzen digu gure inguruan gertatzen ari denari begira jarri eta zein mundutan bizi garen ikusi eta datorkigunari errepaso kritikoa egiteko. Ikusteko, nola ia mugarik gabeko mundu globalean gauzatzen diren errealitateak, hain anitzak izanik, guztiak kapitalaren, diruaren eta merkatuaren zerbitzura egikaritzen diren eta nola gu guztiok, ustez futbolari begira gauden bitartean, sakonean, kirolek harago, merkatuaren inperioa gailentzen den.

Kapitalari bost axola Munduko Kopanora joango den, horren bidez bilatzen duena irabazien metaketa baita. Merkatuaren guda. Esan izan ohi da futbola gerra egiteko modu berria dela. Nazio-estatuak gogoz prestatzen dira joko horretarako. Dirutzak jartzen dituzte beren ekipoen mesedetan, guda horretan asko baitute jokoan. Besteak beste, nazio-estatuizatearen aldarria. Ikusi dugu nola ateratzen dituzten beren naziotasunaren elementu identitarioak, koloreak, banderak eta batasun ikurrak. Futbol ekipiak identitate ikur bilakatzen dituzte egun gutxi batzuetarako. Futbolaren ai-

tzakian, zeharka bederen, identitate nazionalista herritarrengan txertatzea dute helburu. Kapitalak ez du nazio eta estatuturik baina nazio-estatuei aukera eskaintzen die beren identitate subjektiboa trinkotzeko. Joko-gerra horretan jokalariek bizia joko-zelaian utzi dutela esango digute. Hau, guzti hau, aberatsen iruditegian ematen den bitartean, bada beste guda bat, une eta toki berean jotzen dena, errefuxiatuak dituen protagonista eta hil ala bizikoa dena. Errefuxiatuek, bizia, bere zentzurik krudelenean, itsas eremuetan uzten dute. Mundu beraren ertzak. •

Itzulera

Miren Azkarate
Badiola

Pasa den larunbatean Orion egon nintzen iheslari eta deportatu politikoen etxeratzea irudikatu zuen Kalera Kalerak antolatutako ekimenean. Ekimen xumea eta beharrezkoa ene iritziz, baina ez oso jendetsua, zoritxarrez, gai hau tratatzen den bakoitzean gertatzen den moduan. Hala ere, han egon ginenok momentu hunkigarriak bizi izan genituen ikusi genuen eszenografia zela eta. Han egon ez zinetenontzat, guk zubi baten gainetik barku txikiak portura iristen

ikusten genituen poliki-poliki. Kaxiaren abestiari buelta eman genion; “itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora naramate eta ez dakit nora”. Oraingo honetan, gure senide eta lagunek behartuta egin zuten bide hori alderantziz bizi izan genuen; etxera zetozen itsasontzietan. Oraindik ere 80 iheslari politiko inguru daude mundu guztian zehar barreiatuta, horietatik 14, deportatu politiko. Horien artean nire aita, uztailaren 20an 30 urte egingo dituen Kuban. Denek

edo gehienek bederen, aita adina urte daramatzate Euskal Herritik kanpo, tortura, errepresioa eta kartzela ekiditearren. Eta horrek beste datu bat jartzen du mahai gainean, askok 60 urte baino gehiago beteak dituztela dagoeneko. Bada garaia gai honi ere behar bezala eusteko eta merezi duen garrantzia emateko. Horretarako, lehenik eta behin, guztion babesa eta lana beharrezkoak dira, presoen auzian bezalaxe, guztion indarrarekin ekarriko baititugu iheslari eta deportatuak bizirik etxera. •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Afonia

Barruan txintxetaz zintzilikatu beharreko kontzeptu horietako bat da galerarena: gauzei ez diegula garrantzirik ematen galtzen ditugun

arte. Gaztetan irakurri eta arkatzez eginiko ohartxo betetako liburuak barrua nola mugitu zigun ez gara konturatzen etxe-aldaketatik etxe-aldaketarako kartoizko kaxaren batetik desagertzen zaigun arte; haurtzaroan etxe aldamenean orduero puntu-puntuan jotzen zuten kanpaien hostez ez gara ohartzen gaueko isiltasun erabatekoak loa galarazten digun arte. Eta gauzekiko memoria selektibo bera izaten dugu pertsonekiko ere: ondoan daukaguna ez dugu baloratzen bere hutsuneak sabelaldea erretzen digun arte.

Ahotsarekin ere gertatzen da: udako gau labur eta sargorietako garagardo hotzak eta emozio astinaldiek katu azkazal zorrotzen gisa urratzen digute eztarria. Eta esan nahi eta ezinean igarotzen dugu biharamuna, ahora iristerako hainbeste hodi, gihar eta haragi minberatu igaro behar dituen hitz bakoitza kristalezkoa balitz bezala. Hizketan hasterako kalkulatu dugu tonua, bokalen bat grabeegi geratu eta gure ahotik irterako desegin ez dadin; ingurukoen isiltasunaren neurria ere kalkulatu dugu, beste norbaiten hizketaldi ozenak ia xuxurla bilakatutako gure jarduna estali ez dezan; hizketan hasterako kalkulatu dugu esaldien luzera, kalkulatu dugu esatera goazenaren egokitasuna, garrantzia; hizketan hasterako kalkulatu dugu dena. Eta hala ere. Hala ere ez gara iritsiko, esan dugunak ez du pentsatu dugunaren pisurik izango; ez du inoren baieztapenik jasoko. Esan duguna esan izan ez bagenu bezala geratuko



Ez dago tartekako afonia bat baino sendagai hoberik. Juan Carlos RUIZ | FOKU


gara. Eta ahots ozenagoren batek gaina hartuko digu; txikitzen eta txikitzen sentituko dugu gure burua, gure ahotsak hori adierazi baitu: urratuta gaudela, zaurituta, zalantzan. Ahots urratu batek emaniko argudioak ere urratuta baleude bezala.

**Orduan akordatuko gara kale haue-
tan kuadrillan igarotako larunbat
gauez: nor baino nor puztuago, nor
baino nor ozenago, bata besteari
hitza kenduz ia.** Orduan akordatuko gara asanbladetan isilik geratzen denaz, bertso eskolan gaizki pasatzen zuela esaten zigunaz, autoko ordubeteko bidaia hartan kopilotuaren aul-
kian gure abenturak entzuten eduki genuenaz, afalosteetako eztabaidetan sekula arrazoirik ematen ez diogu-

naz, beraiek esandakorik inoiz aintzat hartu ez diegunez. Eta oihu egin nahiko dugu: gure eztarri urratua gehiago zauritu: ezer esateko balio ez duten ahots korda finegi hauen korapiloak banan bana askatu. Beti pentsatu izan dugulako gure argudioen indarra dela arrazoa ematen diguna. Kaka zaharra. Argudioei ahotsak ematen die gorputza; ahotsak esaten duena ere esaten diogu diskurtsoari: gure ziurtasuna, indarra, pieza batekotasuna. Elkarrizketa ere lehian ari bagina bezala bizi dugu, denok abiapuntu beretik hasten garela sinetsita. Eztarriak ezarri gaitu gauden lekuan, eta ezarri zaigun lekua daramagu ez-tarrian.

Ez dago tartekako afonia bat baino sendagai hoberik. •

🦴 LUR AZPIKO ABENTURAK 🦴



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

HORMIGOIZKO BLOKEAK DIKEETARAINO GARAI BATEAN BEZALA ERAMATEN DIRA

Idoia ERASO

Urtero bospasei aldiz, «Babeslea» itsasontzia Donibane Lohizuneko portutik ateratzen da badiako babesla osatzen duten hiru kai-muturretan hormigoizko bloke berriak jartzeko asmoz. Dagoeneko 50 tonako 20.000 bloke inguru jarri direla kalkulatu da.

XIX. mendean bezala, gaur egun ere elkarri lotutako bi gabarrek garraiatzen dituzte hormigoizko blokeak Donibane Lohizuneko portutik bertako hiru kai-muturretara, eta, iraganean bezala, ontziek bertara hurbildu eta gero, blokeak behar den toki zehatzean kokatzeko langileak soka-tiran aritzen dira. 1864. urtean dikeak eraikitzen hasi zirenetik, gauza gutxi aldatu da Donibane Lohizuneko badia babesten duten kai-muturrak osatu eta berritzeko orduan. Lanon gidaritza duen “Babeslea” itsasontziak radarra bezalako teknologia berriak baliatzen baditu ere, iraganean bezala, baldintza meteorologikoen eta mareen koefizientearen arabera aritzen dira egun ere. Aurtengo eguraldi traketsak lanok ohi baino gehiago atzeratzea ekarri du.

Hiru morruk osatzen dute Donibane Lohizuneko badiaren babesla. Alde batean, Zokoan, 390 metroko dike bat dago; beste aldean, Santa Barbaran, 180 metroko beste bat; eta, erdian, 255 metroko Arthakoa. Ekainean egin zuten lehen irteera dikeotara blokeak eramateko. Donibane-Ziburuko portuaren kudeaketaren eskuduntza lortzeko lehian Pirinio Atlantikoe-tako Departamentua irabazle atera dela erakusteko, politikari eta kazetarioi bisita eskaini zitzaigun.

Zokoko portuan aurkitu genituen gerora lanean ikusteko parada izan genituen ontziak. Adituak ez direnentzako arrantzontzi arrunta dirudien “Babeslea”, normalean txalupa txikiak soilik egon ohi diren portuko gunean zen. Horren atzetik, sokaz elkarren artean lotuta bi gabarra zeuden, eta horien arteko loturatik zintzilik, gero ur azpira joanen zen blokea. Teknika bezala gabarren forma ere oso gutxi aldatu da mendeotan; XIX. mendetik hona ontzia bera aldatu behar izan badute ere, egonkortasuna segurtatzen duen egitura bera atxiki dute. Jantzi fluoreszenteak soinean zenbiltzan langileak gabarren gainean, baina orduan gutxiak uste genuen gizonon egitekoa hormigoizko blokeak sokaz tiratuz au-



Langileak, Donibane Lohizuneko badia erdiguneko Arthako dikean; ondoan, «Babeslea» itsasontzia ikus daiteke, eta, atzean, hormigoizko blokea daramaten bi gabarrak. Isabelle MIQUELESTORENA


reikusitako tokira hurbiltzea izanen zenik.

Uharte bat bezala badiaren erdian dagoen Arthara eraman gintuzten. Kai-muturraren gainean jantzi dirdiratsudun beste sei arizale ikusi genituen, eta orduan hasi ziren benetako manio-brak. Gabarren gaineko sei gizonak, dikean zeudenei soka muturrak igorri zizkieten, eta bestaldera mugimendu bera egin zuten bertan zirenek. Margo fluoreszentez markatutako tokitik sokatik tira eta tira hasi ziren barraderan zeuden gizonak. Gabarrak teknologia lagun zehaztutako gunera bitarte hurbildu zituzten, eta, behin adierazitako gune zehatzera helduta, blokea askatu eta urpera bidali zuten.

Egunean jarritako bosgarren blokea zen bisitari gonbidatuak ikusle zirela jarritakoa, azken aurrekoa hain zuzen ere, salbuespenik ezean sei bloke ezartzen baitituzte egunean. Urtean 30 inguru jartzen dituzte orotara, nahiz eta

eguraldiaren arabera kopurua aldakorra izaten den; azken finean, itsasoak eragindako kalteen arabera egokitu behar dira dikeak. 2016an, esaterako, 40 bloke kokatu behar izan zituzten, kalteak handiak izan baitziren.

Orotara 25-26 pertsona inguru aritzen dira lanean Donibane Lohizuneko dikeetan blokeak jartzen. Bi gabarretan, inguruan laguntzen ibiltzen den txalupan eta dikeetan sokatik tiraka aritzen dira langileok. Urtean zehar Zokoko portuko tailerrean aritzen diren langileak dira blokeak jartzera itsasora ateratzen direnetako batzuk, eta, bertako buruarekin eta ingeniari batekin batera, normalean errepideetako langile gisa aritzen diren beharginak ere aritzen dira maniobrook egiten. “Babeslea” itsasontziko langileak eta Marcel Areiza kapitaina ere ateratzen dira lanok egitera. Itsasontziaren buruak, azken blokea jartzeko lanak bertatik bertara ikusteko kazetarioi “Babeslea” ontzira



igotzeko baimena eman zigun. Aurreko bidaia, bisitariontzat prestatutako txalupa turistiko batean egin bagenuen, bigarrenean hurbileko ikuspegi pribilegiatua izan genuen.

Txalupa baten laguntzarekin sokak elkarrekin nola trukutzen zituzten ikusi genuen. Itsaso zabalerako bidea hartua zuen “Babeslea” ontziak, gabarrak atzetik zekartzala; buelta eman eta aurreikusitako bezala Arthatik hamabost bat metrotara kokatu zen, margo adierazitako tokiaren ondoan. Gero harria zekarren ontzia sokekin egokitutako gunea joan zen. “Babeslea” ondoan zuela, seinalea eman eta harri handia askatu zuten. Hormigoizko blokeak inguruko ura nola erakarri eta xurgatzen zuten ikusi genuen. Egun horretan itsasoa nahasita zegoenez, harria erortzen ezin izan genuen ikusi, baina kapitainak azaldu zuenez, eguraldia lagun, batzuetan hamabost metroko sakonerara nola erortzen den ikus daiteke.

Ezkerrean, gabarrak Zokoko portuan, blokea erdian dutela. Eskuinean, Arthako kai-muturrean kubotik tiraka ari diren langileak, atzean Aiako Harriak ikusten direla.
Isabelle MIQUELESTORENA



Itsasontzian hiru gizon ari ziren lanean, kapitainarekin batera marinel bat eta Didier Sallaberry mekanikari nagusia. Konponketetan ze lan egiten duen galdetzean, bere lana «matxurarik inoiz ez izatea» dela aldarrikatu zuen argiki. Etengabe tenperatura, presioa eta izan daitezkeen ihesak kontrolatzen ditu, behar delarik piezak aldatuz. Helburua argia da: itsasontzia lanean ari denean inoiz ez gelditzea. Hori dela eta, itsasora egiten diren irte-

era guzti-guztietan mekanikari bat joaten dela azpimarratu zuen.

Lau orduko ekinean sei blokeak ezarri eta gero, portura bueltatu ziren langile guztiak. Batzuk merezitako pausa berehala hartzea joan ziren bitartean, beste batzuk ontziak berriz bere tokira eramatera joan ziren; “Babeslea”-k Donibane Lohizuneko porturako bidea hartu zuen, eta gabarra txalupekin bideratuta, eta sokak eta makilak lagun, portuko bere tokia hartu zuen.

Orotara 25-26 pertsona inguru aritzen dira lanean Donibane Lohizuneko dikeetan blokeak jartzen. Bi gabarretan, inguruan laguntzen ibiltzen den txalupan eta dikeetan sokatik tiraka aritzen dira langileok

Gabarren artetik askatzean, hormigoizko blokeak inguruko ura nola erakarri eta xurgatzen zuten ikusi genuen. Itsasoa nahasira zegoenez ezin izan genuen harria erortzen ikusi, baina, ura garbia den egunetan, posible da



Goian, «Babeslea» itsasontzia hormigoizko kubo daramaten gabarretatik tiraka, Zokoko portutik ateratzen. Behean, blokea bi gabarren artean, jada portutik kanpo. Isabelle MIQUELESTORENA

Baldintza naturalak egokiak izan eta hurrengo sei kuboak ezartzeko eguna heldu arte, ontziak babesean gelditu ziren. Itsaso koefizientea 90 eta 110 artean den egunetan soilik egin baitaitezke lanok; hori dela eta, aitzinetik jakin dezakete zeintzuk izango diren egunik egokienak. Horien artean, tirainak gehienez metro batekoak izango diren egunak zeintzuk diren ikusi behar dute, eta eguraldia sobera kaskarra ez izatea. Gainera, itsasgora baino bi oren le-

henagoko eta bi geroagoko tartean soilik egin dezakete lan, batzuetan muga izan daitekeena. Baldintza horiek guztiak beteta, eguzkipean eta marinelak ez ziren bisitariak sobera ondoezik izan gabe gauzatu ahal izan zen kazetariekin egindako bidaia. Aurreikus daitezken baldintza naturalak, bereziki itsaso koefizienteari loturikoak, aste honetatik goiti emanen dira berriz, baina uhinen altuerak eta eguraldiak horrekin bat egingen duten ikusteke da-

go oraindik. Ekainekoa aurten blokeak jarri ahal izan dituzten lehen aldia izan zela kontuan harturik, aukera den aldirorobaliatzeko asmoa dutela azaldu zuen “Babeslea” ontziko kapitainak.

TEKNOLOGIA ZAHARRAK ETA BERRIAK

Badia itsasoaren indarretik babesten duten hormigoizko kubo bide osoa, Donibane Lohizuneko badian bertan egiten da, sorkuntzatik itsasoan utzi arte. Neguan uztai eta zirindolak egiten dituzte portuan dagoen tailerrean. Hormigoia isurketa eta blokearen osaketa urri eta abendu artean egiten dute, tailerrean momentu horretan lan egiten duten sei lagunek. Bloke bakoitzari bere zenbakia ezarri eta gero, Zokoko portuaren ondoan itsasoratzen den Untsin ibaiaren bidean kokatzen dute, hurrengo urtera begira. Ehunka metro batzuk besterik egiten ez dituen trenbidea dute ondoan, eta, errailak baliatuta, blokeak gabarrak eta itsasontzia zain dauden portuko aldera eramaten dituzte. Azken partea besterik ez da, olatuen arteko bidaia ikusgarria segituz aurreko urteetan itsasoratutako kideengana eramane dituen.

Udako lan ikusgarriena bada ere, langileak urtean zehar ere itsasoan ibiltzen dira bestelako lanetan. “Babeslea” urri eta apiril artean draga lanetan aritzen da. Badiako ibai nagusia den Urdazurik ekartzen dituen lohiak biltzen ditu, nahiz eta bestelako materialak ere agertzen direla baieztatu zuen kapitainak: «Anitzetan bizikletak agertzen dira. Jendea Donibane Lohizune eta Ziburuko portuen aldean paseatzen aritzen da, bereziki udan, eta, uretara erortzen direnean, jendea ateratzen dute baina bizikletak urpean gelditzen dira. Gero, negua heltzean, guk aurkitzen ditugu».

Alubioiak kentzen 130 metro kubiko inguru biltzen dituzte egunean, bi itzulitan. Bukatu berri den ikasturtean 10.000 metro kubiko inguru bildu dituzte orotara. Ondoren basa hori itsasoan toki zehatz batean askatzen dute, kostaldetik milia bateko distantziara. Blokeak kokatu ahal izan arte kai-muturretan egon daitezken ahulguneak

edo zuloak konpontzen ere aritzen dira langileak urtean zehar.

Lan horiek guztiak garai batean bezala egiten badira ere, hainbat aldaketa jasan dituzten egitekoak ere badira, noski. Morruetan ikus daiteke esaterako, bereziki uretatik kanpo egin beharreko lanetan. Horren erakusle, batzuetan helikoptero baten laguntza izaten dute beharrezko materialak oinez joan ezin daitekeen Arthako eta Santa Barbarako dikeetara eramateko.

Uda heltzean blokeak zehatz-mehatz non kokatu behar diren erabakitzeke ere, teknologia modernoak erabiltzen dituzte. Itsaso azpiko zorua aztertzen duen batimetria definitzeko teknologia aitzinatua baliatzen dute kasu, eta, marea handiak daudenean, itsasbeheretan argazkiak ateratzen dituzten droneen laguntza baliatzen dute. Olatuek kai-muturren paramentuetan egiten duten presioa aztertzeke ikerketa unibertsitarioak egiten ere ari dira. Izan ere, presio hori zer-nolakoa den hobeto ezagututa, kuboaren kokapen egokiena zehazteke gai izan daitezkeela aurreikusten dute.

ERAKUSKETA PORTUAN

Kazetari eta politikarioi bisita bakar batean aurkeztu zitzaigun prozesu osoa hiru urtez segitzen aritu da Greg Underfly. Denbora horretan bildutako irudiekin “Itsasoko gerlariak” izenburupean erakusketa bat atondu du, eta blokeen sorreratik itsasoan ezarriak diren arteko prozesuaren etapa guztiak erakusten ditu.

Irudien interesa gutxietsi gabe, erakusketaren berezitasun nagusia koka-gunea bera da. Izan ere, hainbat metroko zabalera duten argazkiak blokeen gainean ezarri zituzten hasiera batean, eta, hormigoizko meta handiak itsasoratzeko momentua heldutakoan, Zoko-ko portuan bertan jarri zituzten ikusgai. Gauzak horrela, uda guztian zehar badiaren muturrean dagoen gotorleku ezaguneko hormetan ikusgai izango da “Itsasoko gerlariak” erakusketa. Heldu den urtean ere ikusgai jartzeko asmoa agertu dute, jendearen artean izan duen harrera ona kontuan izanik.



Goian, Arthako kai-muturra, Zokoa eta bertako gotorlekua atzean direla. Behean, «Babeslea» itsasontzia, blokea erdian daramaten bi gabarretatik tiraka.
Isabelle MIQUELESTORENA



Blokeak jartzeko beharrezko baldintza naturalak, bereziki itsaso koefizientearekin loturikoak, aste honetatik goiti emanen dira berriro. Hori bai, ikusteke dago oraindik uhinen altuerak eta eguraldiak ere lagunduko duten

Udakoa lan ikusgarriena bada ere, langileak urtean zehar ere ibiltzen dira itsasoan, bestelako lanetan. «Babeslea» itsasontzia urri eta apiril artean draga lanetan aritzen da. Ikasturte honetan 10.000 metro kubiko lohi bildu dituzte



Izaskun Etxeberria Uztarroz

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Pasahitzak ahaztuta behin eta berriro?

Gaur egun ohikoa da gutako edozeinentzat erabiltzaile-kontu ezberdin asko izatea, eta beste hainbeste pasahitz. Bartzuetan, ez dakigu ezta zenbat ditugun ere. Baina, nola pilatu ditugu horrenbeste kontu elektroniko?

Oinarritzko zerbitzuen bezero gisa (telefonoa, argindarra, eta abar) ohi-koa bilakatu da gure datuak eta kontratuak web bitartez kudeatzea bezero-kontu baten bitartez. Aurrezki kutxek ere aukera ematen digute hainbat eragiketa modu telematikoa egiteko bulegora joan gabe eta, erosotasunagatik, gehienok horrelako kontu elektroniko bat dugu. Posta elektronikorako kontua beste adibide bat da eta ia derrigorrezkoa bilakatu da zenbait harremanetan komunikazioak jasotzeko. Askotan, gainera, bat nahikoa ez eta bi kontu izaten ditugu postarako: bat lan kontuetarako eta bestea “gure” gauzetarako. Sare sozialetan parte hartzeko ere, kontua eta pasahitza behar dira, eta horrelako sareak ugariak dira (Twitter, Facebook, LinkedIn...). Era askotako erakundeak zein elkarteak daude Interneten (gobernuz kanpokoak, ikastaroak eskaintzen dituztenak, eta abar), eta, maiz,

horien partaide izateko “erregistratu” besterik ez dugu egin behar erabiltzaile-kontu baten eta pasahitz baten bitartez. Web bitartez eskaintzen diren zerbitzuak eta aplikazioak gero eta ugariagoak dira, eta horiek erabiltzeko ere, gehienetan, erregistratu egin behar da. Horien artean dira: datuak biltegitratzeko zerbitzuak (Dropbox, Google Drive...), Internet telefono-sare gisa erabiltzeko aplikazioak (Skype...), jokoetan *online* aritzekoak, bigarren eskuko salerosketak egiteko plataformak (eBay, Wallapop...), *online* dendak, eta abar.

Ikusten denez, oso erraza da, konturatzeko, erabiltzaile-kontuak zein pasahitzak pilatzea. Horrenbeste ez zirenean, denok antzeko trikimailua erabiltzen genuen: bi edo hiru erabiltzaile-kontu eta pasahitz guztientzat. Gaur egun, ordea, ezinezkoa da horrelakorik egitea: kontu gehiegi dira eta segurtasun minimo bat bermatu beharra dago. Gainera, zenbait kasutan, pasahitzak ezaugarri jakin batzuk bete behar ditu onartua izateko: luzera minimoa; letrak, digituak zein puntuazio-ikurrak erabili beharra, eta abar. Ondorioa garbia da, beraz: nonbait gorde behar ditugu bai kontu-izenak baita horien pasahitzak ere. Non eta nola gorde? Segurtasun minimoa

eskaintzen duen modu sinpleren bat ba al dago hori egiteko?

Lagun batek aukera egoki bat azaldu zidan orain dela gutxi (200 kontutik gora ditu lagunak!). KeePass izeneko aplikazio irekiak pasahitzak modu seguruan kudeatzeko aukera eskaintzen du. Haren bitartez datu-base batean gorde daitezke pasahitz guztiak, eta datu-base hori pasahitz nagusi baten bitartez babes-tu. Era horretan, pasahitz bakar bat gogoratu behar da: datu-basea irekitzeko baimena ematen duena. Aplikazioaren orri nagusian diotenez (Kee-pass.info), datu-basea egun dauden algoritmo onenekin enkriptatzen da segurtasuna bermatzearren.

Eta non gorde datu-base hori? Moduren bat dago, adibidez, telefonotik kontsultatu ahal izateko? Erantzuna baiezkoa da. KeePass aplikazioak bertsio bat du Android sistemarako, KeePassDroid izeneko. Aplikazio horrekin aukera daukagu datu-basea telefonotik irekitzeko. Beraz, datu-basea hodeian gordez gero (Dropbox, Drive...) eta telefonoan hodeia atzitzeko aplikazioa instalatzen badugu, aukera izango dugu gure datu-basea kudeatzeko, bai gure ordenagailutik bai gure telefonotik. Gainera, kontuez eta pasahitzez gain, beste zenbait informazio gorde dezakegu datu-basean: gure telefonoaren PIN eta PUK zenbakiak, txartelen zenbakiak zein segurtasun-kodeak, bizikleta lotzeko giltzarapoaren konbinazioa...

Idea gustuko baduzu baina aplikazio hori ez, lasai. Pasahitzak kudeatzeko aplikazio gehiago aurkitzea ez da zaila Interneten bilatuta. Artikulu batean diotenez, hauek dira bost kudeatzaile onenak (ordena ez da adierazgarria): KeePass, LastPass, Dashlane, 1Password eta RoboForm 8.

Zer, proba egingo al duzu kontuak eta pasahitzak modu seguruan gorde-tzen? •




Gaur egun oso normala da pasahitz mordoak pilatzea eta denekin ez gogoratzea.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Jesus Mari PEMAN

POLIZIAK ERREENTERIA TXIKITU ZUENEKOA

1978. urteko uztailaren 8an, Iruñeko sanferminetan, Poliziak tiroz hil zuen German Rodriguez gaztea. Hiru egunera, hilaren 11n, Iruñeko gertakariak salatzeke manifestazio batean Poliziak tiroz hil zuen Joseba Barandiaran Donostiako Aldapetako aldapan. Barandiaran Astigarragakoa zen. Uztailaren 13an, egoitza Miranda de Ebron zeukan polizia espainiolaren konpainia batek Erreenteria txikitu zuen. 200 polizia inguruk atek eta leihoak tirokatu zituzten, erakusleihoak lehertu, atezain automatikoak errotik atera, etxebizitzetako igogailuetan ke boteak bota, herriko dendak arpilatu... Salaketen arabera, denetarik eraman zuten; betaurrekoak, argazki kamerak, pastelak, bonboiak... Bai, bai, gozoak ere eraman zituzten, Jesus Mari Peman argazkilari donostiarraren irudi honek erakusten duen bezala.

Argazkiaren egilea dagoeneko erretiroa hartua dagoen prentsa argazkilari donostiar sonatu baten semea da: Jesus Peman. Ikasle garaian hasi zen Peman Iruñean editatzen zen "Punto y Hora de Euskal Herria" aldizkariarekin kolaboratzen. Gerora, "Deia" egunkarian aritu zen lanean, 2000. urtera bitartean. Hainbat talde erakusketatan parte hartu du eta bere lana saritua ere izan da. Duela urte batzuetatik, enpresentzat, komunikazio taldeentzat eta erakundeentzat aritzen da lanean batez ere. Pemanek gogoratzen duenez, errepresio bortitzeko egun hartan erreken bestaldean zegoen etxe batean hartu zuen babes, eta bertatik egin zuen argazkia. Erreteriatik alde egin baino lehen, argazki-filma kameratik atera, zapata batean ezkutatu eta beste argazki-filma bat jarri zuen kameran, poliziek kontrol batean geratuko zuten beldur zen-eta.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

